

Gautegiz-Arteagako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren diseinua egiteko diagnostiko txostena



2014ko ekaina

Aurkibidea

- 1.** Sarrera
- 2.** Metodologia
- 3.** Datu soziolinguistikoak
 - 3.1. Biztanleria
 - 3.2. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera
 - 3.3. Etxeko hizkuntza
 - 3.4. Ondorio aipagarrienak
- 4.** Esparruka
 - 4.1. Familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea
 - Deskribapena
 - Datuak
 - Indarguneak / Ahuleziak
 - 4.2. Esparru sozioekonomikoa: merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak
 - Deskribapena
 - Datuak
 - Indarguneak / Ahuleziak
 - 4.3. Aisia eta kirola eta kulturgintza
 - Deskribapena
 - Datuak
 - Indarguneak / Ahuleziak

1. Sarrera

Euskararen Plan Estrategikoa hizkuntzaren normalizazioan aurrera jarraitzeko plan estrategikoa da; hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei auren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna.

Plan Estrategikoaren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Eta era berean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Azken urteotan ugariak izan dira Plan Estrategikoak diseinatu eta martxan jarri dituzten udalerriak, baina oraingoz Gautegiz-Arteagako udalak ez dauka Plan Estrategikorik. Oraingo honetan guk Sakontze geitasmoaren bitartez udalerriko Plan Estrategikoa diseinatu eta garatu dugu. Hori dela eta, prozesu horren abiapuntua udalerriko egoeraren diagnostikoa egitea izan da.

Hasierako urrats hau egiteko funtsezkoa izan da udalerriko eragileen parte-hartzea; izan ere, eurekin izandako elkarrizketen eta euskara batzordearen parte hartze emaitza da eskuartean duzun dokumentua.

2. Testuingurua

Gautegiz-Arteaga 905 biztanle dituen udalerria da eta Oka ibaiaren ertzean dago. Bizkaia lurralde historikoko herri hau Busturialdea eskualdean dago eta bost auzotan banatuta. Halaber, aberastasun handiko ingurune naturalean dago herria, izan ere, gune paregabearen kokatuta dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan.

Herriko biztanleek edo behintzat biztanleriaren zati handi batek Gernika-Lumon egiten du bizimodua, herrian ez dago zerbitzu askorik. Herrian Montorre herri ikastetxea dago eta bertan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza ematen dira, 2 urtetik 12 urtera bitartean. Horitik aurrerako gaztetxoak Gernikako institutura joaten dira.

Gautegiz.-Arteagatik 5 kilometro eginez dago Gernika-Lumo; eskualdeko industria eta zerbitzuak Gernikan biltzen dira eta horiek dira udalerriko jarduera nagusiak.

3. Metodologia

Gauegiz-Arteagako udalerrian euskararen ezagutza zein neurritakoa den eta zein eremutan erabiltzen den aztertu da. Azterketa hori gauzatzeko erabili den metodologia parte hartzailea izan da, parte hartzea hainbat modutara bideratu delarik:

Lehenik, udalerriko eragileekin elkartu eta elkarrizketak eginez iritziak, pertzepzioak, ikuspuntuak... jaso dira: udalerriko eragileak, dendari eta ostalariak eta gurasoak elkarrizketatu dira. Elkarrizketa horietatik batetik eta bestetik, Eustateko datu soziolinguistikoak kontrastaturik, 4 esparru edo atal nagusitan banatutako txostena osatu da:

1. Familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea.
2. Administrazioa (arloan aparte landu da eta bere txosten propioa du).
3. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak)
4. Aisia, kirola eta kulturgintza.

Bigarrenik, udalerriko eragileek eta udal ordezkariak osatutako Euskararen Aholku Batzordea (EAB) parte-hartzaile eta zabala eratuko da. Bertan arlo bakoitzari dagozkion datuak kontrastatuko, iritziak jasoko eta helburu estrategikoak identifikatuko eta lehenetsiko dira. Euskararen Aholku Batzordeko ordezkariak, udalerrian hizkuntzaren normalizazioan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren eragile, entitate eta elkarten ordezkariak izango dira. Era berean, egoki izan liteke hizkuntzaren normalizazioan sentsibilizazio berezia izan dezakeen herritarren bat, adituren bat gonbidatzea.


Hirugarrenik, Euskararen Aholku Batzordeari dagokio:

- Arlo bakoitzaren euskaren egoera aztertu, helburuak, lehentasunezko erronka estrategikoak finkatu eta interes-talde garrantzitsuenak zehaztu, eta horiei zer eskaini eta proposatu.
- Aholku Batzordean parte hartuko duten kideak identifikatu.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren urteroko jarraipena egitea.


Azkenik, prozesuan parte-hartzeari laguntzeko plataforma informatikoa sortu da. Bertan dokumentazio guztia eskuragarri izango da prozesu osoan zehar eta ekarpenak egiteko baliabideak ere izango ditu.


Prozedura:

1. Fasea
(aurkezpena)




2. Fasea
(Planaren diseinua eta onarpena)






3. Fasea (Jarraipena)



3. DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

3.1. Biztanleria


Gautegiz-Arteagak 905 biztanle ditu 2011ko Eustateko datuen arabera. Azken 15 urteetan biztanleriak gorakada egin du. 1996ko datuei erreparatzen badiegu, ikusten dugu 778 biztanle egon zirela, hau da, %16ko igoera izan du udalerriak eta hori izan da joera oro har. 2006ko datuei erreparatuz ere, antzerako egoera ikusten da, 874biztanle. Ondoko grafikoan hobeto ikusiko dugu datuon bilakaera:



Aldaketa nagusienak, 20-64 urte bitarteko biztanleriaren artean izan da, herriko populazioaren hazkundearekin batera.

- 0-19 urte bitartean: 141 (1996), 158 (2011)= %11ko igoera
- 20-64 urte bitartean: 470 (1996), 586 (2011)= %20ko igoera
- >64 urte bitartean: 167 (1996), 161(2011)= berdin mantendu da, zertxobait jaitsi da (%0,3).

Ondoko grafikoan hobeto ikusiko dugu:





3.2. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera

Eustateko 2011ko datuen arabera Gauegiz-Arteagako 2 urtetik gorako biztanleriaren **gehiengoa euskalduna** da, 697 biztanle, hau da, 2 urtetik gorako biztanleriaren %77 Horien artean euskaldun kopurua, euskaldun alfabetatuak, euskaldun erdizka alfabetatuak eta euskaldun alfabetatu gabeak osatzen dute. **la euskaldunei dagokienez**, 131 dira, biztanleriaren %14,4 dira eta **erdaldunak**, 59 biztanle, 6,5 ondoko taulan ikusiko dugun bezala:

+2 urte edo gehiagoko biztanleak euskararen jakintza mailaren arabera	2006	2011
Euskaldunak	639	697
Euskaldun alfabetatuak	413	455
Euskaldunak, erdizka alfabetatuak	205	205
Euskaldunak, alfabetatu gabeak	21	37
la euskaldunak	141	131
la alfabetatuak	76	73
la alfabetatu gabeak	36	30
la pasiboak	29	28
Erdaldunak	77	59


Ondoko grafikoan hizkuntza gaitasunaren bilakaera ikusiko dugu 2006ko datuak eta 2011koak alderatuta.

Ama hizkuntza 2006
Ama hizkuntza 2011



3

Etxeko hizkuntza



Etxean egiten den	2001	2006	2011
-------------------	------	------	------

hizkuntza			
Euskara	442	447	361
Gaztelania	218	294	337
Biak	175	157	190
Besteren bat	8	6	17

3.4. Ondorio aipagarrienak

- Azken 20 urteetan populazioak gorakada polita egin du
- Herritarren hizkuntza gaitasuna: %77 euskara da.
- Gautegiz-Arteagan ama hizkuntza euskara dutenen jaitsiera apala eman da.
- Ama hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza batzuen igoera.
- Etxeko hizkuntza nagusiki euskara da, hala ere, portzentajea bajatu egin da 2006tik 2011ra.
- Gazteen artean euskara hitz egiten da nagusiki.

▯▯ **ESPARRUKA**

Gautegiz- Arteagako euskararen egoera aztertzeko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertuko dira. Orain arte datu kuantitatiboen azterketa egin dugu; atal honetan berriz, elkarrizketetatik jasotako iritzi, pertzepzio eta ekarpenen balorazio kualitatiboa egingo dugu. Jasotako guztia eta EABren hausnarketak kontrastatuko dira eta hortik AMIA osatuko da, hau da, euskararen normalizaziorako faktore positibo eta negatiboak.

Esparruen antolaketa honela egin da, HPSk proposatzen duen egiturari jarraiki:

EUSKARAREN JABEKUNTZA:

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

EUSKARAREN ERABILERA:

4. Administrazioa (ez dagokio atal honi)
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola

EUSKARAREN ELIKADURA:

9. Kulturgintza

Horiek horrela, honakoak dira Gauegiz-Arteagan kontuan hartu diren arloak:

- 1. Familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea:** ikastetxea, guraso elkarte eta eskualdeko euskaltegia.
- 2. Administrazioa:** ez dagokio diagnostikoaren atal honi.
- 3. Arlo sozioekonomikoa:** herriko denda, taberna eta zerbitzuak
- 4. Aisia, kirola eta kulturgintza:** aisialdi, kirol eta kultur taldeak

Elkarrizketetan jasotako hausnarketetatik AMIA egin eta EABren (Euskara Aholku Batzordea) ekarpenekin osatu egingo da; hau da, euskararen normalizaziorako faktore positibo eta negatiboak identifikatu dira:

1. Familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea

Familia bidezko transmisioa:

Deskribapena:

Herrian dagoen euskararen ezagutza nahiko altua da arestian ikusi ditugun datuak oinarri hartzen baditugu eta gurasoek ere, nahiz eta bikote mistoak izan euskaraz egiten diete euren seme-alabei, beraz, euskara transmititzen zaiela esan genezake. Hala ere, bada eta hala jaso dugu, 30-45 urte arteko bikoteen artea gaztelaniaz egiteko joera eta horrek badu eragina haurrak koskortzen joan ahala umeen hizkuntza ohituretan. Aipatu behar dugu, azken bi urteetan gurasoentzako euskalduntze ikastaroak antolatu dituela udalak AEK euskaltegiarekin elkarlanean.

Hona hemen etxean hitz egiten den hizkuntzari dagokion taula adierazgarria ehunekotan jasota:

Etxeko hizkuntza 2011ko datuen arabera (%)	
Euskara	%39,8
Gaztelania	%37,23
Euskara eta gaztelania, biak	%20,9
Beste hizkuntzaren bat	%1,8

Irakaskuntza:

Deskribapena:

Gautegiz-Arteagan eskola bakarra dago. Eskola txikia da eta adin ezberdinetako ikasleak daude gela berean. "D" ereduakoa da eta gaur egun haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen da.

Eskolaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: nekazal giroa eta euskalduna; klaustro txikiak, ikasle kopuru txikia eta horren ondorioz adin desberdinetako ikasleak gela berean.

Azken kurtso honetan guztira 47 ikasle egon dira haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Aurreko urteetan kopurua antzekoa izan da 4-6 ikasle gora behera.

Nabarmena da Eskolak Urdaibai Bird Center eta Aranzadiagaz koordinatutako proiektuak, "Hegaztiak eskolan", hauen barne, Busturialdean arrano arrantzalea birsatzearen aldekoa. Proiektu hau aurrera eramateko Muxikako Urretxindorra eskolarekin dihardu lankidetzan.

Gautegiza-Arteagako Montorre eskolaren irudia korporatiboa eta hizkuntza paisaia (idazpuruak, ordutegia, erakunde barruko kartel eta oharrak, kalean jarritako kartelak, txartelak, zigiluak, salmentarako materiala...) nagusiki euskaraz daude.

Eskolatik bideratzen diren ohar, gutun... euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira.

Euskalduntze-alfabetatzea:

Deskribapena:

Herrian ez dago berez euskaltegirik. Hurbilen dauden euskaltegiak Gernikako AEK euskaltegia eta Aita Villasante Udal Euskaltegia dira. Herritarrek euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak egitera Gernikako euskaltegietara joaten dira.

Eta euskara ikastera doazen herritarrei udalak diru-laguntzak ematen dizkie, matrikularen erdia, hain zuzen ere. Herritar batzuk badabiltza inguruko euskaltegietan euskara ikasten.

Herritarrek kultur etxera, KZgunera edota tabernetara joaten dira eta bertan normalean euskaraz hitz egiten dute. Horrek herriko giroari mesede egiten diola jaso dugu.

Biztanleen hizkuntza gaitasuna kontuan harturik, honako datuak bildu ditugu, ehunekoetan:

Datuak:

Herritarren hizkuntz gaitasuna (%)	
Euskaldunak	
Euskaldunak . Alfabetatuak	%65,2
Euskaldunak. erdizka alfabetatuak	%29,4
Euskaldunak. Alfabetatugabeak	%5,3
Ia euskaldunak	
Ia alfabetatuak	%55,7
Ia alfabetatugabeak	%22,9
Ia pasiboak	%21,3

Helduen prestakuntza (euskalduntze eta alfabetatzea)	
Ikasle kopurua herriko euskaltegietan	--
Euskara ikasleak	8
Euskara ikasteko herritarrei emandako diru-laguntza guztira 2013an	450€
Xede bereziko ikastaroetan ikasle kopurua (gurasoak)	10
Ikasleen matrikulazioa eta birmatrikulazioa	X
Udalerriko diagnostikoa	bai

Indarguneak eta ahuleziak:

Indarguneak	Ahuleziak
-Herriko umeen gurasoak euskararenganako kontzientzia izatea	-Herrira etorri berri diren guraso batzuk euskaraz ez jakitea edota euskaraz hitz egiteko erraztasun falta izatea
-Gazteen artean euskararen ezagutza bermatuta egotea	-Umeak gero eta adin txikiagotik hasten dira gaztelaniaz hitz egiten
-Inguruko herrietan eta bertan D ereduaren presentzia ia erabatekoa izatea.	
-Euskara ikasi nahi duten gurasoei ikastaroak eskaintzen zaizkie, horrela euskararen transmisioa bultzatzen da.	

2. Arlo sozioekonomikoa

Deskribapena:

Gautegiz- Arteaga udalerrri txikia da eta bertako arlo sozioekonomikoa merkataritza eta ostalaritzan oinarritzen da. Horrez gain, esparru hori oso adierazgarria da herrira eta herritarrei begira dagoelako, hau da, euskararen erabileraren kokaleku nagusia da, arreta berezia jarri beharrekoa.

Establezimendu horietako gehienetan, euskararen gaitasuna dago, bitan izan ezik, hauetan gaztelaniaz hitz egiten da bezero erdaldun zein euskaldunekin eta oro har, erabilera hori nahiko barneratuta dago herritarren artean.

Hizkuntza gaitasuna duten establezimenduetako langileen arteko lan bilerak... euskaraz izaten direla jaso dugu elkarrizketetan, nahiz eta ez duen euskararen gaineko irizpide zein erabaki formalik ez hartu.

Elkarrizketatuen hitzetan, bezeroaren lehen hitza euskaraz bada, euskarazko erantzuna izatea da, hizkuntza gaitasunik ez duten hiru establezimenduetan izan ezik.

Karteleria eta hizkuntza paisaia elebitan edo euskaraz agertzen da nahiz eta kanpotik

(bestelako elkarteetatik) datozen kartel, oharrak... izan.

Kanpo harremani dagokienean, nagusiki udalarekin eta beste elkarteekin (kultura, aisia, kirola), euskara nagusitzen da, idatziko harremanetan, gutxi diren arren, gaztelaniaren pisua nabarmenagoa da.

Datuak:

Udalerriko enpresak guztira	68
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	--
Industria, energia eta saneamendua	5
Eraikuntza	15
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	18
Informazio eta komunikazioak	--
Finantza eta aseguru jarduerak	1
Higiezin aktibitateak	4
Jarduera profesional eta laguntzaileak	10
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	11
Arteetako eta bestelako jarduerak	4
Enplegu kopurua	139

Indarguneak eta ahuleziak:

Indarguneak	Ahuleziak
-Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuek, asko izan ez arren, herrian pisua dute	-Zerbitzu batzuetan gaztelania nagusitzen da kanpora zein barrura begirako harremanetan
-Arlo honetan euskararen aldeko pausuak emateko aukera zabala	-Zerbitzuetako langile batzuek ez dute euskara menperatzen
-Denda eta tabernetako hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatzen da	-Ez dago inolako harrera irizpiderik

--	--

3. Aisia, kirola eta kulturgintza

Deskribapena:

Gautegiz-Arteagan, kultur etxea da aisialdirako dagoen gune fisiko nagusia, bertan, liburutegia, kultur etxea eta Kzgunea daude. Bertan euskararen erabilera bermatzeko ez dute hizkuntz irizpide formalik jasota, hala ere, bertako langileek gaitasuna badute eta eta irizpiderik formalki jasota ez izan arren, euskara naturalki erabiltzen dute herritarrekin. Kultur Etxeko langileetariko batek elkarrizketan esan zigun, hainbat ume etortzen direla liburutegira eta euskara dela nagusitzen den hizkuntza.

Kirol arloan ere nagusiki euskara erabiltzen da Gautegiz-Arteagan, hala jaso dugu kirol elkarteari egindako elkarrizketan.

Indarguneak eta ahuleziak:

Indarguneak	Ahuleziak
-Herriko kirol, aisi eta kultur taldeek ahozko barne zein kanpo harremanetan euskara erabiltzen dute	-Batzuetan euskaldun eta erdaldunekin batera lan egin beharra
-Elkartetako kideen artean euskararen ezagutza altua (%90)	-Idatzizko komunikazioan euskarak batzuetan kale egitea
-Kideen arteko erabilera altua	-Oro har ez da irizpide, ez erabaki formalik hartu
-Elkarteek ateratako kartelerian (ekintzak iragartzekoak...) euskararen presentzia bermatuta	
-Euskararekiko kontzientziazio eta jarrera baikorra	
-Udalarekiko harremanak euskaraz	

Hiznet -Sakontze egitasmoa-

--	--

Iratxe Garmendia eta Ainara Idoiaga